



KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN ERABAKIA, ARABAKO TIRO OLINPIKOKO FEDERAZIOAK ARABAKO PLATER-TIROKETAKO KLUBEN ARTEKO TXAPELKETAREN ANTOLAMENDUAREN HARIRA HARTUTAKO ERABAKIAREN AURKA MARQUÉS DE LAS AMARILLAS TIRO KLUBAK AURKEZTUTAKO ERREKURTSOA AINTZAT HARTZEN DUENA.

Espediente-zenbakia: 33/2017

AURREKARIAK

Lehena.- 2017ko apirilaren 7an, Arabako Zuzenean erregistroan sartu zen Marqués de las Amarillas Tiro Klubeko presidentek, Arabako Plater-tiroketako Kluben arteko Txapelketaren antolamenduaren harira, Arabako Tiro Olimpikoko Federazioak emandako ebazpenaren aurka jarritako errekurtsoa.

Errekurtsogileak alegatu zuen 2017ko apirilaren 4an *Tiro Olimpikoko Federazioari plater-tiroketa bat egiten uzteko eskatu ziotela eta bere klubeko bi tiratzailek ezin izan zutela hori egin, Arabako Plater-tiroketako Kluben arteko Txapelketan, martxoaren 25ean, Arabako Tiro Olimpikoko Federazioak akats bat egin zuelako; izan ere, behin-behineko egutegia aldatu, eta hilaren 25eko goizean, larunbata, parte hartzeko aukera bertan behera utzi zuten.*

Zehazki, honako jazoera hauek alegatu zituen:



1. Arabako Tiro Olinpikoko Federazioak behin-behineko egutegia aldatu du, behar bezala eta zuzenbidearen arabera jakinarazi gabe. Hori dela eta, desabantaila eragin da Arabako Plater-tiroketako Kluben arteko Txapelketaren sailkapenerako, baita diru- eta kirol-arazo bat ere klubeko tiratzaileentzat.
2. Behin-behineko egutegiaren aldaketa ez zen Arabako Tiro Federazioaren iragarki-oholean argitaratu, eta, gainera, 2017ko apirilaren 18an, Arabako Tiro Federazioaren webgune ofizialean, 2017ko martxoaren 25eko ordua goiz/arratsalde gisa (G/A) zegoen markatuta oraindik.
3. Behin-behineko akatsa zuzentzen zuen behin betiko egutegian, Arabako Tiro Olinpikoko Federazioaren webgune ofizialaren arabera, 2017ko apirilaren 4ko data ageri da. Horrek agerian uzten du akatsa ez zela zuzendu martxoaren 25a baino lehen.

Azaldutako guztia dela-eta, eta idatzian aipatzen diren zuzenbidezko oinarrien arabera, honako hau eskatzen du: *Arabako Tiro Olinpikoko Federazioari eskatzea Okondon egingo den hurrengo txapelketan egun hari (2017/03/25) dagokion tiroketa egiten uztea, Arabako Tiro Olinpikoko Federazioaren akats baten ondorioz ezin izan baitzuten egin.*

Bigarrena.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak (aurrerantzean, KJEB) errekurtsu hori izapidetzea onartzea eta Arabako Tiro Olinpikoko Federazioari espedientea eskatzea erabaki zuen. Horrekin batera, alegazioak egitea ahalbidetu, eta egokitzat jotzen zituen froga-eginbideak aurkezteko aukera eman zion.



Hirugarrena.- 2017ko maiatzaren 24an, Arabako Tiro Olinpikoko Federazioak eskatu zitzaion espedientea helarazi eta errekursoarekiko alegazioak aurkeztu zituen. Laburbilduz, honako hau alegatu zuen:

1. Kirol-federazioek funtzio administratibo delegatuak betetzen dituzte. Kasu honetan, Arabako Tiro Olinpikoko Federazioak du autoantolatzeko ahalmena eta Okondon joan den 2017ko martxoaren 25ean egindako Arabako Plater-tiroketako Kluben arteko Txapelketa antolatzeko, kalifikatzeko eta, kasu honetan, Los Mortis klubari antolatzea baimentzeko eskumena.
Federazioaren barruan, Batzar Nagusia arduratzen da egutegiak onartzeaz. 2017ko martxoaren 31n Batzar Nagusia egin zen eta Marqués de Amarillas Tiro Kluba bertaratu zen. Batzar horretan, behin betiko egutegiak onartu ziren, baina aurreko bileran, egutegiak ezarri zirenean, azaldu zen Federazioaren behin-behineko egutegiak aldatu egin daitezkeela, eta horregatik behin-behinekoak direla. Los Mortis klubak ez du inoiz egiten tiroketarik goizez eta arratsaldez; arratsaldez bakarrik egiten ditu, aurreko urteetako egutegiei begiratzuz egiazta daitekeen moduan.
2. Behin betiko egutegi ofiziala tiroketaren ondoren egin zen Batzar Nagusian onartu zenez, Federazioak ezin izan zuen jakinarazpenik egin ekitaldi hartan. Egutegia iragarki-oholean ere azaldu ez zen arren, Federazioak fede onez jardun du; izan ere, jasota geratu denez, txapelketa egin baino lehen mezu elektronikoko bat bidali zen, tiroketa-deialdiaren ordutegia aldatu zela jakinarazteko. Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Federazioei buruzko urtarrilaren 31ko 16/2016 Dekretuaren 71. artikuluari jarraituz, Federazioak zirkular bat bidal dezake posta elektronikoko bidez deialdi-aldaketak jakinarazteko,



federazioaren auzi bat delako eta ez duelako behar administrazioaren aurretiazko onarpenik.

3. 2017ko maiatzaren 5ean, plater-tiroketan parte hartu zuten klub guztiek, txapelketaren ordutegi-zuzenketa jakinarazi zitzaizela berresten zuen gutun bat sinatu zuten, Marqués de las Amarillas Tiro Klubak izan ezik, erreklamatzailerak izaki ez zitzaizolako dokumentua sinatzeko eskatu. Gainerako klubek sinatu zutenek, errekurtsogileak ere jasoko zuen egutegi-aldaketaren jakinarazpena behar adina denboraz eta dagokion moduan, horren berri izan zezan.
4. Marqués de las Amarillas Klubak fede txarrez jokatu du, federazioaren irudia hondatzeko; izan ere, gainerako klubek bezalaxe, Los Mortis klubak Okondon antolatutako klubentzako torneoaren egutegi berria eta programazio zuzena ondo ezagutzen zituzten. Marqués de las Amarillas Klubeko presidentek, Arabako Tiro Olimpikoko Federazioko bulegoetara bertaratu zenean erreklamazioa aurkeztera, hitzez onartu zuen, ATOF Arabako Tiro Olimpikoko Federazioko presidenteari eta idazkari nagusiari aurrean, behar adina denboraz eta zegokion moduan jakinarazi zitzaizola eta bere akatsa izan zela tiratzaileei ez jakinaraztea.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehena.- KJEBk du errekurtsio hau aztertzeko eskumena, Euskadiko kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 138.c) artikuluari eta Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duen urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren 3.c) artikuluari jarraituz.



Bigarrena.- Errekurtsoa jarri duen kluba eta Arabako Tiro Olinpikoko Federazioa bat datoz honako alderdi honetan: 2017ko martxoaren 25ean, Arabako Plater-tiroketako Kluben arteko Txapelketaren behin-behineko egutegia bakarrik zen ofiziala. Egutegi horren arabera, parte hartzeko ordua goizez edo arratsaldez izan zitekeen.

Beste alderdi batean ere bat datoz bi alderdiak: behin betiko egutegia txapelketa hasi ondoren onartu zela adierazi dute; 2017ko martxoaren 31n egin zen batzar nagusian, hain zuzen.

Arabako Tiro Olinpikoko Federazioak bere alegazioetan azaltzen duen moduan, Euskadiko Kirol Federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 14.1 artikulua arabera, *beste funtzio batzuez gain, Euskadiko federazioek eta lurraldeko federazioek administrazio funtzio publikoak betetzen dituzte, eta, halakoetan, dagokion administrazioaren agente laguntzaile gisa jarduten dute.*

Era berean, aipatutako 16/2006 Dekretuko 36.1 artikuluan honako hau xedatzen da: *Indarrean den araudiaren arabera eraturiko kirol federazioek baino ez dute eskumena izango lehiaketa ofizialak arautu, kalifikatu eta baimentzeko, eta dagozkien titulu ofizialak emateko; betiere, euren lurralde eremutik atera gabe.*

16/2006 Dekretuko 74.e) artikuluan, Batzar Nagusiaren esku utzitako funtzioen barruan, *lehiaketa ofizialen egutegia onartzea* ezartzen da.

Funtzio horrekin lotuta, Arabako Tiro Olinpikoko Federazioaren estatutuetako 19.2 artikulua adierazten duenez, *Batzar Nagusiak ohiko bilkura egingo du gutxienez urtean behin, urteko lehen seihilekoan, kontuen egoera eta*



aurrekontua onartzeko. Egutegi ofiziala denboraldia hasi aurretik onartu behar da.

Egiaztatu den moduan, Arabako Tiro Olinpikoko Federazioaren Batzar Nagusiak ez zuen egutegi ofiziala 2017ko martxoaren 31ra arte onartu, hau da, egutegi ofiziala denboraldia hasi ondoren onartu zen, eta errekurtoa jarri duen klubak 2017ko martxoaren 25ean ezin izan zuen goizez parte hartu. Beraz, ez da bete Arabako Tiro Olinpikoko Federazioaren estatutuetako 19.2 artikuluan jasotzen den betekizuna, alegia, egutegi ofiziala ez da denboraldia hasi aurretik onartu.

Hirugarrena.- Arabako Tiro Olinpikoko Federazioak Marqués de las Amarillas Klubari ordutegi-aldaketa posta elektronikoz jakinarazteari dagokionez, lehenik eta behin aipatzekoa da, mezu elektronikoko horren edukia aztertu ostean (atxikitako dokumentuetako edukia ez dugu ezagutzen, ez baitira aurkeztu mezu elektronikoarekin batera), ez dela aipatzen behin-behineko egutegian inolako aldaketarik egingo denik. Mezu elektronikoko horretan, Batzar Nagusirako deialdia egiten zen eta zenbait kontabilitate-gai aipatzen ziren, baina ez zen aipatzen txapelketaren behin-behineko egutegia aldatu zenik. Mezu elektronikokoaren edukia guztiz bat dator lehen aipatu dugun estatutuetako 19.2 artikuluko betekizunarekin (kontuen egoera eta aurrekontuak onartzeko bilera).

Bigarrenik, posta elektronikoko bidezko jakinarazpenei dagokienez, erantsi beharra dago baliabide hori komunikatzeko asko erabiltzen den arren, ez dela baliozkoa jakinarazpenak egiteko. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa), 43. artikuluan, jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez nola egin behar diren xedatzen du:

43. artikulua. Jakinarazpenak bitarteko elektronikoz egitea.



1. *Bitarteko elektronikoz egindako jakinarazpenak diharduen administrazioaren edo organismoaren egoitza elektronikoa agertuz egingo dira, emandako helbide elektronikoa bakarren bidez edo bi sistemen bidez, administrazio edo organismo bakoitzak erabakitzen duenaren arabera.*

Artikulu honetan aurreikusitako ondorioetarako, egoitza elektronikoa agertzea zera da: interesdunak edo haren ordezkariak, behar bezala identifikaturik, jakinarazpenaren edukia eskuratzea.

2. *Haien edukira sartzen den unean egintzat joko dira bitarteko elektronikozko jakinarazpenak.*

Jakinarazpena bitarteko elektronikoz egitea nahitaezkoa denean, edo interesdunak espresuki hori aukeratu duenean, ez onartutzat joko da haren edukia ez bada eskuratu jakinarazpena eskura jarri zenetik hamar egun natural igarotakoan.

3. *40.4 artikuluan adierazitako betebeharra konplitutzat emango da jakinarazpena eskura jartzen denean diharduen administrazio edo organismoaren egoitza elektronikoa edo emandako helbide elektronikoa bakarrean.*

4. *Interesdunek jakinarazpenak eskuratu ditzakete Administrazioaren Irispide Puntu Elektroniko Orokorrean, zeinak irispide-atari baten moduan funtzionatuko baitu.*

Aurkeztutako mezu elektronikoa ez ditu betetzen artikulu horretan, bitarteko elektronikoa bidez egindako jakinarazpentzat hartu ahal izateko, ezarritako betekizunak.

Azkenik, jakinarazpen elektronikoei buruzko atalarekin amaitzeko, batzorde honek aurreko erabaki batzuetan aipatu duen epai bat aipatzea komeni da: 2016ko urtarrilaren 7ko epaia, Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salarena: «*Egintza administratiboaren kanpo-eraginkortasuna horren jakinarazpenaren arabera da (...) berme hori ezinbestekoa da, bai doktrinaren bai jurisprudentziaren arabera*». Jarraian, hau eransten du: «*Inork ez du zalantzan jartzen jakinarazpen elektronikoa legezkota denik; baina, hain zuzen ere, funtsezko bermea dela eta, Administrazioak frogatu egin behar du baliozkoa izan dadin beharrezkoak diren baldintza guztiak*



bete dituela». Lehen adierazi dugun moduan, kasu honetan, ez da frogatuta geratu jakinarazpenak baliozko izateko beharrezko baldintza guztiak bete dituela.

Bidalitako mezu elektronikoari dagokionez, Arabako Tiro Olinpikoko Federazioak alegatu du urtarrilaren 31ko 16/2016 (2006 da) Dekretuko 71. artikulua arabera Federazioak zirkular bat bidal dezakeela posta elektronikoz bidez deialdi-aldaketa jakinarazteko, federazioari dagokion gai bat delako eta ez duelako administrazioaren aurretiazko onarpenik behar. Federazioak egindako baieztapen hori zalantzan jarri gabe, mezu elektronikoaren edukitik ezin da ondorioztatu behin-behineko egutegiaren aldaketa jakinarazi denik, mezu elektroniko horren edukian ez baita inon aipatzen aldaketa hori.

Laugarrena.- Arabako Tiro Olinpikoko Federazioak aurkeztu duen dokumentuan, Arabako Plater-tiroketako Kluben arteko Txapelketako klub interesdun guztiek sinatuan, errekurtsoa jarri duen klubak izan ezik –klub horri ez baitzitzaion dokumentua sinatzeko eskatu, errekurtsogilea zelako– adierazten da klub guztiek, 2017ko martxoaren 25a baino lehen, tiroketa-ordutegia aldatu zela jakin zutela. Dena den, presuntzio horrek ez du frogatzen errekurtsogileak bazekienik behin-behineko egutegia aldatu zela; frogatzen duen gauza bakarra da aipatutako txapelketan parte hartu zuten gainerako klubek bai, behin-behineko egutegiko aldaketa horren berri bazutela, dokumentua sinatuz adierazi zutenez.

Bosgarrena.- Kontuan hartuta Marqués de las Amarillas Klubak zein Arabako Tiro Olinpikoko Federazioak fede onez jardun dutela beren eskubideen defentsan, aipatzekoa da izan omen dituzten elkarrizketa pertsonalak (Arabako Tiro Olinpikoko Federazioak aurkeztu dituen alegazioen arabera) ezin direla froga askitatz hartu eta bataren eta bestearen hitza baino ez daudela.



Seigarrena.- Frogatuta geratu denez 2017ko martxoaren 25ean Arabako Tiro Olinpikoko Federazioko Batzar Nagusiak onartu gabe zeukala Arabako plater-tiroketako herri arteko txapelketaren behin betiko egutegia, eta ez denez frogatu Arabako Tiro Olinpikoko Federazioak errekurtsogileari aipatutako data baino lehen tiroketa-ordutegiaren aldaketa jakinarazi zionik, aurkeztutako errekurtsua aintzat hartuko da.

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak honako hau

EBAZTEN DU

Aintzat hartzea Marqués de las Amarillas Tiro Klubeko presidenteak Arabako Plater-tiroketako Kluben arteko Txapelketaren antolamenduaren harira Arabako Tiro Olinpikoko Federazioak hartutako erabakiaren aurka jarritako errekurtsua.

Erabaki hori gauzatzeari dagokionez, Arabako Tiro Olinpikoko Federazioari dagokio nola gauzatuko den erabakitzea. Une honetan erabakia gauzatzea posible ez bada, Arabako Tiro Olinpikoko Federazioak, kasuan kasu, dagozkion konpentsazio- edo ordainketa-neurriak hartu beharko ditu.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsua aurkeztu ahal izango dute interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordean, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo administrazioarekiko auzi-



errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatuta baitago Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko uztailaren 14a

JOSÉ LUIS IPARRAGIRRE MUJICA

Kirol Justiziako Euskal Batzordeko presidentea